

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Kontseiluko kideak beren karguen jabe egin dira Barcina Lehendakariaren aurrean

Foru Komunitateko kontsulta-organo gorenaren bost gizonen eta bi emakumeen osatutako dute, bi kasuetan ere sartu berriak

Miércoles, 20 de febrero de 2013

Nafarroako

Kontseilua osatzen duten zazpi kideak beren karguz jabetu dira Foru Gobernuaren egoitzan gaur egin den ekitaldian eta Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina buru dela. Harekin batera izan dira, Nafarroako Parlamentuko lehendakari Alberto Catalán, Gobernuaren zenbait kide eta izendatutako kontseilarien senideak.



La Presidenta Barcina, con Catalán, Morrás y los miembros del Consejo de Navarra. Barcina Lehendakaria, Catalán, Morrás eta Nafarroako Kontseiluko kideekin.

Foru Komunitateko

kontsulta-organo gorenaren bost gizonen eta bi emakumeen osatutako geratu da. Honako hauek dira: Alfonso Zuazo Moneo, Alfredo Irujo Andueza, José Iruretagoyena Aldaz, José Antonio Razquin Lizarraga, Eugenio Simón Acosta, María Ángeles Egusquiza Balmaseda eta María Asunción Erice Echegaray. Lehen bostek agintaldia errepikatuko dute, eta azken biek, berriz, postuak estreinako beteko dituzte.

Barcina Lehendakariak bere agerraldian nabarmendu du Kontseiluaren osaketa berrian "jarraipena eta berrikuntza nahasten direla", eta "berdintasunerako bidean gure gizartearen aurrerapen eraginkorra" erakusten dela. "Egindako lan onagatik" irtendako kideek burututako lana eskertu ondoren (Enrique Rubio Torrano eta Julio Muerza Esparza), egungo kideei eskatu die beren jardura "zorrotasunez eta arduraz" egin dezatela.

Nafarroako Kontseiluaren 8/1999 Foru Legeak jasotzen duenez, kontsulta-organoko kideak sei urteko denboraldirako izendatzen dira Nafarroako politika-izaera duten ospe nahiz esperientzia handiko legelarien artean.

Kideak Gobernuako Lehendakariak izendatzen ditu, bost Nafarroako Parlamentuak proposatuta eta gainerako biak (Eugenio Simón eta José Antonio Razquin) Foru Gobernuak proposatuta.



Barcina Lehendakaria Nafarroako Kontseiluko kideen aurrean hitz egiten.

Beren karguez jabetu ondoren, Nafarroako Kontseiluko kideek lehendakari eta idazkari bat aukeratuko dituzte kideen artean.

Nafarroako Kontseiluak honako honen ardura du: Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta foru-araudiaren lanketako gainerako ordenamendu juridikoa jarraitzea eta betearaztea. Haren txostenak ez dira lotesleak, legeak kontrakoa xedatzen ez badu behintzat, eta aukera edo egokitasuneko balorazioak ezin ditu izan.

Gobernuaren aldetik ekitaldian izan dira, lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea; bigarren lehendakariorde eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin; Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari Javier Morrás; eta Osasun kontseilari Marta Vera.

Nafarroako Kontseiluko kideak

- [María Ángeles Egusquiza Balmaseda](#) Barakaldon (Bizkaia) jaio zen 1962an, Zuzenbidean lizentziatuta dago Nafarroako Unibertsitatean eta Zuzenbidean doktore da La Lagunako Unibertsitatean (Tenerife). Zuzendaritzako hainbat kargu bete du Nafarroako Unibertsitate Publikoan, eta bertan Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Katedra zuzendu zuen 2006-2009 artean.

- [María Asunción Erice Echegaray](#) Iruñean jaio zen 1957an eta Zuzenbidean lizentziatu zen Zaragozako Unibertsitatean. 2000. urtean Nafarroako Gobernuak Nafarroako Administrazio Auzitegiko Hirugarren Saileko lehendakari izendatu zuen, eta gaur arte kargu hori betetzen du.

- [Alfredo Irujo Andueza](#) Iruñean jaio zen 1956an eta Zuzenbidean lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean. 1979an ekin zion abokatu-jarduerari eta 2003tik aurrera Iruñeko Abokatuen Elkargoko dekanoa da. Nafarroako Kontseiluko kide da 2006. urtetik.

- [José Iruretagoyena Aldaz](#) Iruñean jaio zen 1957an eta Zuzenbidean lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean. Oposaketa bidez Iruñeko Udalaren abokatua da 1983. urtetik eta jarduneko abokatu 1991tik. 2009tik Nafarroako Kontseiluko kide da.

- [José Antonio Razquin Lizarraga](#) Torranon (Ergoiena) jaio zen 1955ean, eta Zuzenbidean lizentziatuta eta doktore da Nafarroako Unibertsitatean. Nafarroako Gobernuako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren zuzendari da 1985etik eta Nafarroako Kontseiluko kide 2000. urtean hura sortu zenetik.

- [Eugenio Simón Acosta](#) Valverde del Fresno herrian (Cáceres) jaio zen 1951n, Zuzenbidean doktore da Boloniako Unibertsitatean (Italia) eta Zuzenbidean lizentziatuta dago Salamancako Unibertsitatean. 1985etik Finantza eta Zerga Zuzenbideko katedraduna da eta Nafarroako Kontseiluko kide 2000. urtean hura sortu zenetik.

- [Alfonso Zuazu Moneo](#) Bartzelona jaio zen 1956an, Zuzenbidean lizentziatuta dago Bartzelonako Unibertsitate Zentralean eta Zuzendaritza eta Kudeaketako masterra du Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Nafarroako Gobernuako aholkulari juridikoa da 1985etik eta Nafarroako Kontseiluko kide 2000. urtean hura sortu zenetik.

Lehen argazkiaren oina (ezkerretik eskuinera): José Antonio Razquin, Eugenio Simón, María Asunción Erice, Alberto Catalán, Alfonso Zuazu, Yolanda Barcina, José Iruretagoyena, Javier Morrás, Alfredo Irujo eta María Ángeles Iguisquiza.